


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

IKASLEEN PARTE-HARTZEA

IKASTETXEAN:

AMARA BERRI PROIEKTUA

EREDU GISA

GRADU AMAIERAKO LANA

2020-21 ikasturtea

Egilea: Iban Kortazar Arteatx

Tutorea: Maitane Basasoro Ciganda

Laburpena

Urteetan zehar hezkuntza aldatzen joan den arren, gaur egun oraindik ikasleen parte-hartzea oso mugatua da. Eskola gehienetan oraindik eredu tradizionala gailentzen da, irakaslea aditu izanik eta ikasleak, ordea, hartzaile hutsak. Egoera honi aurre egiteko eta teoria errealitatera eramateko, eredu berritzaile eta parte-hartzaileak zabaldu behar ditugu. Bide horretan, Gradu Amaierako lan honetan ikaslearen parte-hartzean eta haien interesetan oinarritzen den hezkuntza eredu bat aurkeztuko da; Amara Berri proiektua, hain zuzen ere. Horretarako, Donostiako Amara Berri ikastetxeko arduradunetako batekin elkarrizketa bat burutu da, proiektuaren oinarri pedagogikoak ezagutzeko eta eguneroko jardunaren nondik norakoak ezagutzeko.

Resumen

A pesar de que la educación ha ido cambiando a lo largo de los años, todavía hoy la participación de los alumnos es muy limitada. En la mayoría de las escuelas sigue predominando el modelo tradicional, con el profesor como experto y los alumnos como meros destinatarios. Para hacer frente a esta situación y trasladar la teoría a la realidad, debemos desplegar modelos innovadores y participativos. En este camino, en este trabajo de Fin de Grado se presentará un modelo educativo basado en la participación del alumno y sus intereses, el proyecto Amara Berri. Para ello, se ha llevado a cabo una entrevista con uno de los responsables del colegio Amara Berri de Donostia, para conocer las bases pedagógicas del proyecto y conocer los pormenores de la actividad diaria.

Abstract

Despite the fact that education has changed over the years, even today the participation of students is very limited. In most schools, the traditional model continues to predominate, with the teacher as the expert and the students as the mere recipients. To face this situation and translate theory into reality, we must deploy innovative and participatory models. Along this path, this Degree Final Project will present an educational model based on the participation of the student and her interests, the Amara Berri project. To do this, an interview was carried out with one of the managers of the Amara Berri school in Donostia, to learn about the pedagogical bases of the project and learn the details of the daily activity.

AURKIBIDEA

SARRERA	3
JUSTIFIKAZIOA	4
MARKO TEORIKOA	4
3.1 Eskola tradizionala alde batera uzteko beharra	5
3.2 Rolen aldaketa eta komunikazioaren garrantzia	6
3.3 Ikasleen parte-hartzea	7
3.4 Ikasleen interesetatik abiatzen diren edukiak	10
HELBURUAK	10
METODOLOGIA	11
EMAITZAK	11
6.1 Historia	11
6.2 Hezkuntza proiektuaren gakoak	12
6.3 Metodologiaren nondik norakoak	13
6.4 Ikasleen parte-hartzea	15
ONDORIOAK	17
MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	18
ERREFERENTZIAK	20
ERANSKINAK	24
10.1 Elkarrizketa egiteko baimen-dokumentua	24

1. SARRERA

Gaur egun oraindik hezkuntza tradizionala da eskoletan nagusi, irakaslea jakintsua eta informazioa ematen duena izanik, eta ikaslea, aldiz, informazio horren hartzaile hutsa. Gainera, ikasleak informazio hori gorde eta gero, arlo ezberdinak gainditzeko azterketak egin behar ditu. Baina eredu hau benetan ikaskuntza barneratzeko esanguratsua al da? Bertan ikasitakoa esanguratsua al da ikasleentzako?

Eredu tradizional hauen alternatiba gisa, gero eta gehiago dira ikasleen parte-hartze aktiboa bilatzen duten eredu berritzaileak. Izan ere, ikaslea protagonista bilakatzen badugu, hau da, bere hitza, xedeak, interesak, kezak eta motibazioak kontuan hartzen baditugu, ikaskuntza esanguratsuagoa eta erakargarriagoa izan daitekeela frogatu da.

Askotan, zaila izaten da eredu berritzaileetara saltoa eman behar dela jakin arren, teoria hori praktikara eramatea, hezkuntza testuinguruan dagoen ezjakintasunaren ondorioz. Horregatik, garrantzitsua da hezkuntza eredu berritzaileei ikusgarritasuna ematea, hezkuntza-komunitatean ere praktikoak eskura izateko.

Hori horrela, Gradu Amaierako Lan honetan ikaslea proiektuaren ardatzean jartzen duen hezkuntza eredu bat aurkeztuko dut; Amara Berri proiektua, hain zuzen ere. Donostiako Amara Berri eskolako koordinatzailearekin elkarriketa bat burutu ostean eta informazioa analizatu ostean, emaitzetan proiektuaren oinarri pedagogikoak eta eguneroko jardunaren nondik norakoak aurkeztuko dira.

Lan hau burutzeko prozesua nahiko luzea izan da. Izan ere, lana bukatu arte hainbat urrats izan ditu eta horiek ere lanean islatzen dira. Lehendabizi, ikasleen parte-hartzearen ikuspegi teoriko bat jasotzeko asmoz marko teorikoa osatu nuen, bibliografiaren irakurketa eginez. Ondoren, marko teorikoa kontutan izanik eredu berritzaileen informazioa lortzeko metodologia aukeratu izan behar nuen, eta Amara Berri sarearekin kontaktuan jarri eta gero, informazio esanguratsua eta aberatsa lortzeko modu hoberena elkarriketa bat egitea zela erabaki nuen. Elkarriketatik lortutako informazioarekin emaitzak egin ahal izan nituen, Amara Berri proiektua ahalik eta modu argienean eta logikoenean azalduz; azkenik, emaitza horiek behatuz gero nik ateratako ondorioak idatzi nituen.

2. JUSTIFIKAZIOA

Lan honetarako ikasleen parte-hartzeari buruzko gai hau aukeratu dut, nire bizitza akademikoan zehar izandako esperientziarengatik. Beti iruditu zait hezkuntza tradizionala ez dela esanguratsua, gehienetan informazioa memorizatzea eta azterketan memorizatutakoa idaztea zelako, eta informazio hori egun gutxi batzuen buruan ahazten nuelako. Modu horretan, ikaskuntza ez da batere esanguratsua, eta ikaslearentzako aspergarria bilakatzen da.

Pertsonok gogoz ikasteko, motibagarriagia izan behar da, interesa izan behar dugu, hurbila eta errealia izan behar da. Hau horrela izango balitz, eskola ikaslearentzat erakargarriagoa izango litzateke, izan ere, bertan bereganatutako eduki eta balioak esanguratsuagoak bilakatuko lirateke.

Gainera, etorkizunean irakasle izango naizen heinean, gai hau lantzea profesionalki nire irakasle jardunean lagungarria izan daiteke, begirada aldatzen eta kontzientzia-maila esanguratsu bat lortzen lagun diezadakelako, eredu praktikoa batek ematen dituen baliabideak eskura izanik.

3. MARKO TEORIKOA

Zenbat denbora ematen dute irakasleek irakatsi beharrekoa nola egin pentsatuz? Kontuan hartzen al dituzte ikasleen interesak? Edota Curriculumean azaldutakoa transmititzera soilik mugatzen dira? Zenbat denbora ematen dute diziplina-arloari dagozkion baliabide interesgarriak bilatzen, lan-kontsignak idazten, taldekatzeko moduak, baliabideak, denbora erabilgarria eta ebaluazioa antolatzen? (Anijovich et al., 2009).

Villarrek aipatzen du (1997), gizartearen zati handi bat, ikastetxe eta zentro kulturalak batik bat, oraindik ere industrializazio garaiko beharrei erantzuteko pentsatuak daudela. Pixkanaka metodologia zein teknika berriak aplikatzen hasi diren arren, oraindik ere emaitzei ematen zaie garrantzia, eta ez ikasleen interesei.

Hori dela eta, La Cueva (1998) dio, irakasleek elkarren artean loturirik ez duten kontzeptuak baneratzeko amaitzen dutela Derrigorrezko Hezkuntza. Sistema honek ezagutzak sekuentzia

lineal eta metatzaile baten arabera ordenatzen ditu, eta errealtateko ikas-prozesutik urrun geratzen den irudi hori sartu digute buruan. Gainera, loturarik ez izateaz gain, testu liburuek, lehiakortasunak eta emaitzek hartzen dute garrantzia.

Eredu tradizionala baztertzeko beharra nabarmenduz, Gerverrek (2010) dio hezkuntzak lagundu egin behar diola pertsona bakoitzari bere tokia aurkitzen gizartean, baita bakoitzari bere bizitzari ahalik eta etekin handiena ateratzeko modua aurkitzen ere. Bide horretan, ezagutza-prozesuaren kalitatea garrantzia handikoa da. Anijovich et al.-ek (2009) adierazten dute programazioaren osagai guztiak elkarren artean koherenteak direnean funtzionatzen duela; irakatsi beharreko edukirako baliagarriak direla, irakaslearentzat garrantzitsuak direla eta ikasle hartzaileentzat esanguratsuak direla.

3.1 Eskola tradizionala alde batera uzteko beharra

Hezkuntza-mundua aldatzen ari bada ere, hezkuntzak oinarrian berdina izaten jarraitzen du. Gaur egungo hezkuntza-sistema piramide gisa dago irudikatuta, eta botere harremanak oraindik ere agerikoak dira. XIX. mendeko metodo horri eutsi ordez, eredu asoziatibo bat ezarri beharra dago: ikasle eta irakasleok aliantzak eraiki behar ditugu, elkarri entzun (Calleja, 2010).

Schiefelbein-en (1994) ustez, eredu tradizionalak hainbat desabantaila ditu; horien artean, parte-hartze txikia aipatzen du. Izan ere, autoreak berak dioenez, klase oso aktibo batean ere parte-hartzea ikasle gutxi batzuetara mugatzen da. Irakaskuntza tradizionala ez da egokia taldean lan egingo duten pertsonak hezteko, ez duelako aukerarik ematen erantzukizunak hartzeko, irudimena garatzeko eta ikasleei ez dielako behar bezala hitz egiten uzten; horregatik, irakaskuntza tradizionalak masifikazio-testuinguru batean bakarrik du zentzua (Reverte et al., 2007).

Hezkuntza eraldatzeko behar honi lotuta, ekonomiak, gobernu-sistemak, gizarte zibilak, familiek eta hezkuntza-sistemak berak aldarrikatzen dute eskolan pertsona adimentsuak heztearen beharra, gai izan daitezen beste iritzi batzuk onartu eta aztertzeko, alternatibak sortzeko eta komunikatzeko. "XX. mendearen erdialdeko teknologia erabiltzen zuen nekazariaren lan fisikoak edo ekoizpen-ildoek behar zuten hezkuntza eskasarekin alderatuta, XXI. mendeko lanpostuek langileek arazoak identifikatzea eskatzen dute, beren lan-planak diseinatzea, lortzen dituzten emaitzak ebaluatzea eta horiek lortzeko modu berriak eta

hobeak aurkitzen laguntzea” (Schiefelbein, 1994¹, 3. or.). Hori dela eta, eskola ere berritzeko behar hori.

Hau guztia ikusirik, Gerverrek (2010) argi adierazten du: gure seme-alabak gu hezi gintuzten bezala hezten jarraitzen badugu, ez dute inoiz arazo globalen konponbidea aurkituko, mundua asko aldatu baita. Orain gure seme-alabek askoz gehiago ikasten dute beren kabuz ikasgelan baino; horregatik, maisuen zeregina ikasleak etorkizunerako prestatzea izan behar da.

Horrez gain, egungo gizarteko aniztasuna kontuan hartuta, XXI. mendeko eskolen erronketako bat ikasleen aniztasunari erantzutea da, eta horretarako, beharrezkoa da partaidetza eta demokrazia baldintzetan oinarritzea, hezkuntza-arloko esku-hartzeari bira emanaz eta ikasgelak ikastetxe inklusibo bihurtuz, non guztiek, salbuespenik gabe, bizitzan zehar kalitatezko hezkuntzaz gozatzeko eskubidea izango duten (Pérez, 2011).

3.2 Rolen aldaketa eta komunikazioaren garrantzia

Nahiz eta irakaslea ez izan Curriculum diseinatzen duen eragile bakarra, zeregin garrantzitsua dagokio edozein gidalerro edo edukien alde aurreko hautaketa praktikan jartzeko garaian.

Ikasleek protagonismoa hartzen duten hezkuntza ereduetan, irakasleak gelako autoritatea erabat uztea espero da, eta ikaslea irakaskuntza-prozesuko parte-hartzaile aktibo gisa hitz egiten hastea. Irakaslearen rola aldatuko da eta honek ikuskatzaile eta proiektuaren administratzaile papera beteko du; ikasleen gidari izango da, ikasleek, beren kabuz, jakintza eraiki dezaten eta proiektuaren helburua lor dezaten (Torres, et al., 2006).

Hori kontuan izanik, Rizok (2007) adierazten du ikaste-irakaste prozesuak ikasle eta irakaslearen arteko lankidetzara behar duela. Gainera, autore berak gehitzen duen moduan, komunikazioa ezinbesteko baldintza da lankidetzara hau modu orekatuan eta osasuntsuan eman dadin.

¹ Euskarara itzultitako zita. Jatorrizko hizkuntzan: “En contraste con la escasa educación que requerían las líneas de producción” o el trabajo físico del campesino que usaba la tecnología de mediados del siglo XX, los puestos de trabajo que ofrece el siglo XXI requieren que los empleados identifiquen problemas, diseñen sus planes de trabajo, evalúen los resultados que alcancen y que cooperen en encontrar nuevas y mejores formas de lograrlos” (Schiefelbein, 1994, 3. or.).

Ikasleen eta irakaslearen arteko elkarreraginean, komunikazioa oso garrantzitsua da irakatsi eta ikasteko prozesua indartzeko; izan ere, Palaciosek (2013) adierazten duen bezala, elkarrizketak, komunikatzeko modu gisa, ezagutza transmititzeko, transferitzeko eta eraikitzeke eta pertsona autonomo eta independente bat prestatzeko ekarpena egiten du.

Zoritxarrez, gaur egun ikasleen eta irakaslearen arteko komunikazioa prozesu sistematiko bat da, non ikasleen eta irakaslearen esku-hartzeak bereizita ematen diren. Horregatik, esan daiteke komunikazioa mezu baten igorle eta hartzaile soilak izatera mugatua dagoela (Palacios, 2013).

3.3 Ikasleen parte-hartzea

Irakasleak tradizionalki izan ohi duen rola alde batera uzteak, ikasleek protagonismoa hartzea dakar, eta horrek, aldi berean, haien parte-hartzea bultzatzea, haien interesak kontuan hartzea eta haien ahotsa entzutea.

Ikasleen parte-hartzeak garrantzi handia lortu du Nazioarteko hezkuntza-eztabaidan. Adibidez, Europako Kontseiluak (2002, 2010) azpimarratzen du beharrezkoa dela eskoletako eguneroko jarduera guztietan ikasleen partaidetza-prozesuak sustatzea, ikasgelako lanetik hasi eta ikastetxearen kudeaketa orokorrera arte (García-Perez eta Montero, 2017).

Eskolan parte-hartzeak era askotako formak, esanahiak eta interpretazioak har ditzake: edukien presentzia eta atxikitze hutsetik hasi eta guztion ongizatea bilatzeko konpromiso, ekimen eta erabaki kolektiboak hartzeraino. Horrekin lotuta, Trilla eta Novellak (2001) parte-hartzea bereizteko lau maila azaldu zituzten:

- Parte-hartze sinplea, lehen mailan kokatuko litzateke; honetan, prozesu edo jarduera batean exekutatzaile edo ikusle gisa parte-hartzen da, jarraibideei jarraituz.
- Bigarren mailan, kontsultarako parte-hartzea dago. Bertan, exekutatzaileei iritzia eskatzen zaie. Parte-hartze honen barruan maila edo gradu desberdinak daude; (oinarrizkoena hartzaileen iritzia eskatzea izanik), baina kasu egiteko konpromiso seriorik gabe.

- Parte-hartze proiektatzailearen kasuan, subjektua ez da erabiltzaile soila, agente aktibo bihurtzen da. Subjektuek proiektua propio bezala hartzen dute eta barrutik esku-hartzen dute.
- Azken mailan, metapartaidetza kokatzen da. Hau, subjektuek beraiek parte-hartzeko espazio eta mekanismo berriak eskatzen, exigitzen edo sortzen dituztenean agertzen da.

Honek agerian uzten du parte-hartzeko modu zein maila desberdinak daudela baita parte-hartzeak ekar dezakeenari buruzko ikusmolde asko ere. Hori dela eta, beharrezkoa litzateke parte-hartzeari buruz ari garenean, zer parte-hartze motari buruz ari garen argi uztea.

Santos Guerrak (2007) adierazi zuen parte-hartzeak zerikusia duela bizi den errealitatea protagonizatzeko ekintzekin. Haurrek eskolan parte-hartzeak esan nahi du, ikasleek beraiek ikastetxean duten bizitzaren eta baita orokorrean ikastetxearen bizitza eraikitzearen zereginetan parte-hartzea, hau egiteko baliabideak eta protagonismoa izanik.

Ikasleen parte-hartzea hain da garrantzitsua eta erabakigarria ikasgelaren esparruan, non hein handi batean, irakaskuntza-metodo aktiboen muina izan ohi den. Beraz, ikasleek ikasgeletan parte-hartzea edo ez hartzea, baldintzatua dago metodo aurrerakoiak edo kritikoagoak erabiltzeko orduan (Bretones, 2002).

Parte-hartzearen garrantzia nabarmenduz, San Fabiánen (1994) ustez, parte-hartzea ez da eskola-kudeaketa eraginkorragoa egiteko tresna, eskola-kudeaketa hezitzaileagoa bihurtzeko baizik; hau da, hezkuntzaren zerbitzura dagoela dio, kudeaketaren zerbitzura baino gehiago.

Bestalde, ikasleen parte-hartzeko beharra eta honen onurak azpimarratuz, esan dezakegu ikasleen parte-hartzea motibazio-fronte intrintsekoa dela, eta, beraz, eragin onuragarria duela irakaskuntza-prozesuetan eta ikaskuntzaren emaitzetan.

Withallen (1989) arabera, gizakiak bere ekintzen eragile edo kausatzat hartu behar du bere burua eta ez du besteen erabakiengatik maneiaturik sentitu behar; gizakiak hautapena eta askatasuna bilatzeko oinarritzko joera du. Haren ustez, hezkuntza-ekintzan, ikasleek askatasun-mailaz eta aukeratzeko aukerez duten pertzepzioak eragin handia du

errendimenduaren kalitatean, ikaskuntza-prozesuei buruzko sentimenduetan eta emaitzen autoesleipenean. Hori horrela bada, irakasleek betebeharrak garrantzitsuak dute baldintzak errazteko, baliabideak emateko eta giro egokia sortzeko, ikasleek eskolako bizitzako erabakietan parte-hartzeko.

Ikasleen parte-hartzearekin lotuta daude ikasleen interesguneak; horren harira, John Deweyk (1859-1952) eta, bera baino lehenago, Ovide Decrolyk (1871-1932), "ikasleen interesguneez" hitz egin zuten, ikaskuntzaren zereginak eta edukiak antolatzeke ardatz gisa (Besse, 2005). Bessek bere lanean bi autore hauen teoriaren analisi sakona egin zuen. Hori oinarritzat hartuta, bi autoreek zera diotela esan dezakegu:

Decrolyren ustez, interesak "haurren oinarritzko interesak" dira, eta haien helburua oinarritzko premiak asetzea da (elikadura, babesa bilatzea, birstortu beharra, etab.). Interes horiek naturaltzat jotzen dira, eta horiek mobilizatzea lortzen duten eskola-jarduerak motibagarriak izango dira. Ildo horretan, ardatz gisa interesa duen jarduera batek oro har, adin jakin bati lotuta egongo balitz eta diziplina eta gizarte edukiak integratzea lortuko balu, arrakasta izateko bermea izango luke.

Deweyren planteamenduan, interesek dimentsio sozialagoa hartzen dute, eta ikasleengan lankidetzan aritzeko nahia mugiaraztea bilatzen dute, jokabide demokratikoa lortzeko asmoz. Interesaren kontzeptua marko teoriko eta une historiko ezberdinen argitan berrinterpretatu bada ere, beti bi ideiarekin lotuta agertu zen: motibazioa eta entretenimendua; eta horrek lehen esan bezala lotura estua du ikasleen parte-hartzearekin; horretarako irakaslearen rola birplanteatuz, noski.

Azkenik, esan beharra dago parte-hartzea ikaslearen ekimen eta erantzukizun pribatutik harago doala, eta, ikasleen ezaugarri indibidualekin baino gehiago, parte-hartze hori posible izan dadin ikasgelan eta ikastetxean sortutako aukerekin duela zerikusia. Horri esker, gogoeta egin dezakegu ikasgelan eta ikastetxean parte-hartzeko egiturak nolakoak diren, zer-nolako elkarrekintzak bultzatzen edo eragozten dituzten, zein diren parte-hartzeak ikasleentzat eta irakasleentzat dakartzan betebeharrak eta eskubideak, eman beharreko edukiak, ikastetxean parte-hartzeko zenbat modu bultzatzen diren eta, azken batean, zein diren sustatzen diren parte-hartzeko politikak (Schultz, 2009).

3.4 Ikasleen interesetatik abiatzen diren edukiak

Ikasleen parte-hartzearekin jarraituz eta haien interesetan zentratuz, haiek proposatutako jarduerari egozten zaien zentzuari buruz galdetu behar diogu geure buruari (Anijovich et al., 2009). Ikasleek zeregin bati zentzua eman diezaioten, irakaslearen rola birplanteatzeaz gain, ikasleekin partekatu behar ditugu gure asmoak eta egin nahi dugunari buruzko irizpideak.

Helburuak publikoki eta esplizituki azaltzeak eta ikasle-taldearekin adostekak kontratu didaktiko bat ezartzea ahalbidetuko du, non bai irakasleek eta ikasleek irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren ardura hartuko duten. Baina, gainera, autonomia eta konpromiso handiagoa lortzeko, ikasleek ulertu behar dute zergatik eta zertarako eduki hori, eta beren lorpenak eta zailtasunak ebaluatu behar dituzte jarduerak garatzeko (Anijovich et al, 2009).

4. HELBURUAK

Teorian erraza ematen duen arren, nabaria da oraindik ere praktikan ez dagoela parte-hartze erreal bat eta ikasleen interesetatik abiatzen diren ereduak ez direla ohikoak. Hala ere, jakin badakigu geroz eta eredu berritzaile gehiago daudela eta ikaslea erdigunean jartzen duten hezkuntza proiektuak daudela. Horiei ikusgarritasuna emanez, teoriaren eta praktikaren arteko arrakala hori gainditzeko urratsak eman ditzakegula uste dugu.

Ondorioz, lan honetarako nire helburua, ikasleen interesetatik abiatutako ikaskuntza erreal bermatzen duen proiektu bat aurkeztea da; Amara Berri proiektua, hain zuzen ere. Gradu Amaierako Lan honen helburuak, laburbilduz, honakoak lirateke:

- Amara Berri proiektua sakontasunez aztertzea.
- Amara Berri biltzen dituen oinarri pedagogikoak identifikatzea.
- Amara Berriko eguneroko jarduna deskribatzea eta bertan ikasleen parte-hartzeak hartzen duen lekua aztertzea.

5. METODOLOGIA

Ikerketa kualitatibo hau burutzeko eta proposatutako helburuei erantzuteko, Donostiako Amara Berri eskolako Koordinatzailearekin elkarrizketa bat burutu dut. Elkarrizketarako, aurretik Amara Berri proiektuaren informazioa bilatu nuen, proiektua ezagutzeko eta elkarrizketaren ildoak planifikatzeko. Zenbait galdera edo ideia garrantzitsu identifikatu nituen, baina elkarrizketa ez zen galdera-erantzun formatu itxian egin. Zenbait galdera edo gako aurreikusita eraman arren, elkarrizketaren helburua ahalik eta informazio gehien jasotzea zen, proiektuaren inguruko informazio ugari eta aberatsa izateko. Hala, elkarrizketa ireki bat burutu genuen eta momentuan beharren arabera galderak egin nituen. Informazio guztia jasotzeko elkarrizketa ahots-grabagailuarekin erregistratu nuen eta horretarako baimen-dokumentua (ikus eranskina 1) sinatu zuen parte-hartzaileak.

Ondoren, informazioa transkribatu, kategorizatu eta analizatu nuen. Azkenik, jarraian aurkezten ditudan emaitzak eta ondorioak atera nituen.

6. EMAITZAK

6.1 Historia

Amara Berri proiektua Loli Anaut irakasleak sortu zuen Durangon 1972an. Loli irakasle lanetan zegoen eta bere ikasle taldea behatuz konturatu zen hezkuntza aldatu egin behar zela. Garai hartako eskola eredu direkzional eta metodologia memoristikoa ez zela horren eraginkorra ikusi zuen, eta ikasleak ere prozesuan modu aktibo batean parte-hartu behar zuela ondorioztatu zuen.

“Benetako ikasketa eta ezagutza parte aktiboan kokatzean ematen da; eta gaur egun askoz hobe dakigu emozionalki edo ondo gaudenean ikasten duguna, askoz hobe finkatzen dela gure barnean ezagutza hori. Orduan, berak esaten zuen hori pentsatzen baldin badugu eta ikaslea protagonista izan behar bada berak parte-hartzeko prozesu hortan modu aktibo batean, metodologia ere garrantzitsua izango da, nola antolatu behar den“ (AM_K_1-1).

Bere proiektua Durangoko Lehen Hezkuntzan probatu ondoren, Donostiara mugitu zen

eta bertan, Durangon probatutakoa, Donostiako Haur Hezkuntzan probatu zuen. Horrela hasi zen proiektua, eta ordutik gaur egunera arte bizirik dirau.

Garai hartatik hona proiektu edo hezkuntza eredu hau Euskal Herriko eskola ezberdinetara zabalduz joan da, gaur egun ezagutzen den Amara Berri Sarea osatuz. Gaur egun sare hori 20 eskolek osatzen dute: Bizkaian 8, Gipuzkoan 10 eta Araban 2. Sare hau komunitate bat bezalakoa dela adierazten dute; tarteka eskola ezberdinetako ordezkariak elkartzen dira koordinazio-mintegiak eginez, eta modu honetan antzekoak diren eskola hauen artean informazioa konpartitu eta elkarrengandik ikasi ahal dute. Lan egiteko orduan ere, eskola batek bakarrik ezin du hainbeste egin, baina 20 eskoletako 800 irakaslek osatutako sareari esker, bakoitzak bere lana eginez, guztien artean Amara Berri aurrera eramateko eta proiektua aberasteko gauza handiagoak lortu ditzakete.

“Zuk eginez gauza bat, eta zure gauza, gehi nirea, gehi besteena, gauza handiagoa osatzen dugu, pixka bat ideia hori da. Azkenean parte-hartzea, sentitzea talde handiago batean. Eskolan bakarrik gauza asko ezin dira egin, sarean gehiago, orduan goazen etekina ateratzera, hori da kontzeptua” (AM_K_5-5).

6.2 Hezkuntza proiektuaren gakoak

Proiektu honen zentroan ikaslea kokatzen da. Ikasleak pertsona bezala ikusten ditu, hau da, ikasleak ikasteko doaz eskolara, baina emaitzetatik haratago pertsona bezala duten alde emozionala ere kontutan izan behar da, eta bakoitzaren egoera emozionalak izan dezakeen eragina ere bai. Adierazten dute, pertsona modu integralean asetuta sentitu behar dela modu egoki batean harremantzeko eta zoriontsu bizitzeko.

“Zuk gauzak ezagutu eta ikasten dituzu baina emozionalki nola zauden eta harremantzen zaren ere garrantzitsua da. Zu izan zaitezke koko bat fisika nuklearrean, baina lagunik ez baduzu eta triste baldin bazaude, alferrik. Azkenean, pozik bizi beharko dugu harremanuz eta osoak sentitu behar gara” (AM_K_1-2).

Honekin batera, ikasleak komunitaterako parte aktibo izatea bilatzen du proiektuak; gizartean bezalaxe, eskola ere, ikasleek parte-hartzen duten komunitate bat bilakatzea, non bakoitzak bere ardura duen, inplikazioz eta aktiboki parte hartuz, beti ere alde emozionala kontutan hartuz eta gainontzekoekin modu asertiboan jokatzeko saiaturik. Komunitate horretan, gainera, aukera berdintasuna egon behar da eta eskolak horretarako baldintzak bermatu behar ditu.

“Eskolak eskaini behar ditu aukera ezberdinak zu pertsona bezala sentitu eta bizitzeko

eta beste aldetik ere eskolak eskaini behar dizkie aukera ezberdinak ikasle guztiei, nolabait ekitate eta aukera berdina izateko ikasle guztiek” (AM_K_1-2).

Amara Berriko hezkuntza proiektuan ikaslea pertsona aktibo eta parte-hartzailea da. Ikaslea modu global batean ikusten dute, gure bizitza ere globala delako eta esparru ezberdinetan ematen delako. Modu honetan, ikaslea zentroan egonik, honen alde pertsonalari, emozionalari eta pertsona bakoitzaren aniztasunari arreta jartzen dio proiektu honek, ikasle bakoitzak dituen ezberdintasunak kontuan izanda eta bakoitzak dituen behar ezberdinei erantzuteko espazioak eta baliabideak eskaintzen saiatuz.

“Eskola anitza da, aniztasunari erantzun nahi diogu. Pertsona guztiek ezberdin ikasten dute, emozionalki ezberdin gaude momentu bakoitzean eta gainera hori aldatuz doa. Eskolak erantzuten dio egoera horri? Hori da planteatu behar duguna eta horregatik metodologia nola egiten den garrantzitsua da” (AM_K_1-4).

Bestalde, pertsona bakoitzak interes eta motibazio pertsonalak izaten ditu, eta ikasleen artean interes orokor eta garrantzitsu bat jolasa da. Ondorioz, hezkuntza proiektu honetan jolasak paper garrantzitsua hartzen du, jolasaren bidez ikasleek beraien interesetatik abiatuz ikasi dezaketelako, horrela ikaskuntza motibagarriagoa, entretenigarriagoa eta esanguratsuagoa eginez.

“Jolasa, urteetan eta oraindik ere lege berrietan esaten da ez ikastea eta denbora galtzea dela. Baina jolasa oso tresna interesgarria da emozionalki konektatzeko jakin nahi duzunarekin eta gozatzeko egiten duzunarekin” (AM_K_1-6).

6.3 Metodologiaren nondik norakoak

Amara Berrin, unitate didaktikoen bidez programatu beharrean, testuinguru sozial egonkor eta osagarrien bitartez programatzen da. Testuinguru sozialak (auzoa, hedabideak, irratia...), gauzak eginez ikasteko gelak dira. Eskola hauetan, gelak egonkorak dira eta ikasle taldeak, irakasgaiaren arabera geletan zehar mugitzen doaz. Adibidez, matematikako gela batean egongo den testuinguru soziala auzoa izango da. Gela horretan auzoak egongo dira, eta bertan denda eta etxeak. Ikasleek, bizitza errealeko testuinguru horretan erosketak egin beharko dituzte, menuak planifikatu, elikagai kopurua pentsatu, pisua eta prezioa kalkulatu, besteak beste. Hau egiten doazen heinean, matematika landuko dute, jolastuz eta gainontzekoekin harremanduz. Azken finean, gela guztiak parte-hartzeko espazioak dira, eta ikasleek protagonista izanik ikasten dute.

“Gela hau matematikakoa bada, auzoak ditugu. Auzoak dira, denda eta etxeak. Testuinguru sozial horretan, bilatzen ditugu bizitzako egoerak, bertan gauzak eginez, salerosketak, magnitude ezberdinak lantzen, etab. ikasteko. Hemen jolastuz, menua egiten, garbantzoak erosi, gramoka, prezioak eta abar... eta horrela testuinguru sozial horietan harreman sozialak ematen dira uneoro” (AM_K_2-1).

Testuinguru sozial horiek egonkorrak izango dira, bizitzan konpetentea izateko gauza horretara behin eta berriz bueltatu behar delako; espiral modura irudikatzen dute, errepikapenaren bitartez, gero eta hobe eginez eta ikasiz.

Ebaluazioa egiteko orduan, zer ebaluatu jakin behar da. Amara Berrin, testuinguruetan daude antolatuta gelak. Orduan, irakasleak kontrolatu behar du testuinguru edo gela horietako bakoitzean zeintzuk diren ebaluatzeko elementu garrantzitsuak, esanguratsuak, eta ideala da horiek ikasleei ere poliki transmititzen joatea, haiek ere jakiteko zer den garrantzitsuena testuinguru bakoitzean. Honekin batera, irizpide batzuk egon behar dira testuinguru bakoitzean.

“Adibidez, komunikazioan jendea komunikatzeko espazio batzuk eta nola komunikatzen zaren, talde ezberdinak. Baina zer da uztartu behar duzuna, ze testuinguru dira komunikazioa hobeto ikusten direnak? Komunikazioa izan daiteke hitzaldi bat aurkeztean, behatzea espazio horretan ondo jasotzen den. Baina baita tutoretza baten zure iritzi pertsonala ematen duzun, edo IAn (ikasle antolakuntzan) gai hori tratatzean, eta baita komunikazioa ingelesez nola egiten duzun, edo baita... Ulertzen? Indikadore batzuk badaude, horiek behaketa pistak eman ditzakete” (AM_K_7-1).

Eredu honetan ebaluatzeko ez dago azterketa beharrik, irizpide horiek behatuz ebaluatu daitekeelako. Testuinguru bakoitzak irizpide ezberdinak eskainiko ditu, eta horiek behatuz ikasleen inguruko ebaluazio global bat egin daitekeela argudiatzen dute.

“Antzerki batek lagunduko dizu behatzen beste gauza batzuk, eta testu idatziak beste gauza batzuk. Edo irratira joatean beste gauza batzuk” (AM_K_7-2).

Honez gain, ikasleen jarraipen estruktura ere badago. Irakasle ezberdinek ikasle berdinek konpartitzen dituztenez, astean behin ikasle talde berdinek konpartitzen dituzten irakasleak biltzen dira, ikasle horien inguruko jarraipen bilerak egiteko.

Amara Berri erabiltzen duten eskoletan, arlo bakoitza gela ezberdin batean kokatuta dago, horrela matematikako gela, zeintzietako gela, eta abar izanik eta lehen esan bezala gela bakoitzean testuinguru soziala ezberdina izanik. Modu honetan, irakasleak ere

geletan finkoak dira, eta ikasle taldeak geletan zehar mugitzen doaz.

Honi esker, irakasle ezberdinek ikasle talde berdinak konpartitzen dituzte, horrela tutoretza partekatuz. Tutore ofiziala, familiarekin harremandu eta gauza burokratikoak egiten dituen izango da, baina gela eta irakasleen estruktura honi esker, ikasle talde berdin horiek konpartitzen dituzten irakasleen artean perspektiba intersubjektiboa lortzen da, eta horrela ikasleenganako arreta eta esku-hartzea ere egokiagoa izan daiteke.

“Honek, irakasleek taldeak konpartitzeak, ahalbidetzen digu alde batetik ikuspegi intersubjetiboagoa, baina bestetik interbentzio malguagoa, eta bestetik interbentzio zabalagoa, irakasleak elkarrekin hitz eginez. Adibidez, ni tutore izan arren, zu gazteagoa zara eta ikasle jakin batekin konexio gehiago baduzu, interbentzioa adostuz momentu konkretu batzuetan zuk gehiago lagundu ahal izango diozu” (AM_K_2-5).

Testuinguru edo geletan, ikasleen arteko adin nahasketa erabiltzen da. Ikasle taldeak zikloka banatzen dira: 1 eta 2 mailak batera daude, 3 eta 4 mailak ere bai eta baita 5 eta 6 mailak ere. Modu honetan, adibidez 1.go zikloan 1.go mailakoak berriak direnean, 2. mailakoek harrera egiten diete eta 2. mailako ikasle horiek aurreko urtean testuinguru sozial egonkor horretan egon zirenez, dinamika ongi ezagutzen dute jada eta gai dira 1.go mailako ikasle berriei azalpenak emateko.

“Ziklo bakoitzera doazen ikasle berriek lasaitasuna dute, jada ziklo horretan egon diren ikasleak lagunduko dietelako eta harrera egingo dietelako. Beraz, txikiek aurreikusten dute eta handiek harrera egiten dute. Horrela parte-hartzeko espazio bat da” (AM_K_2-3).

Honez gain, adin nahasketari esker taldeak ez dira horren egonkorrak, eta ondorioz, askotan, taldeetan sortzen diren rol eta etiketak murriztea lortzen da. Horrela, talde horiek urtero birmoldatuz edo egonkortasun hori murriztuz, bizitza esparru eta talde ezberdinetan ematea ahalbidetzen da.

6.4 Ikasleen parte-hartzea

Ikusi dugun bezala, Amara Berri eremuan ikasleek gela bakoitzeko testuinguru sozialetan egunerokotasunean parte-hartzen dute. Baina honez gain, badago egitura propio bat ikasleen parte-hartzera bideratua; egitura hau, ikasleen antolamendua deitzen da. Astean behin batzordeetan biltzen dira gela bakoitzeko ordezkariak. Esparru ezberdinak daude (mediateka, agenda 21, jangela...) eta gela bakoitzetik zenbait ordezkari egongo dira esparru bakoitzerako. Adibidez, Donostiako Amara Berrin 6 esparru daude; beraz, gelan 24 ikasle badaude, gelatik 4 ikasle izango dira esparru bakoitzeko ordezkariak, eta esparru bakoitzeko

batzarrera aste bakoitzean 4 ordezkari horietatik bat joango da; modu honetan, ikasle guztiek dute ardura eta parte-hartzeko espazio eta estruktura.

Esparru hauetan beraiek hartzen dituzte erabakiak eta planifikatzen dituzte gauzak. Adibidez, jangela esparruan ez dute menua erabakiko, baina bai ea jangelako monitoreekin harremana ona den, jasotzeko orduan ondo antolatzen diren, zarata egokia egoten den, eta abar.

“Egitura hau beraien artean, zertako? Batzuetan, adibidez mediatekan, liburu egunerako antolatu behar ditugu jarduerak, ba eramaten dute ordezkariak bere gelara lana. “Ideiak behar ditugu brainstorming eginez...”, gero berriro bueltatu hurrengo bilerara, berriro klasera berriro bilerara, feedbacka emanez. Zertako? beraiek erabakitzeko zer egin horretan” (AM_K_2-8).

Esparru horietako bakoitzean, irakaslea egongo da gelako ordezkariekin dinamizatzailerik edo koordinatzaile lana egiten. Edo eskolaz kanpoko jardueren esparruan, adibidez, irakaslea egon beharrean jolastokiko zaintzailea egongo da. Edo jantokiko batzordean adibidez, komunak oso zikin geratu direla bada arazoa, garbitzailea ere konbokatua izango da ikasleek ikus dezaten zikinkeria hori zeinek jaso behar duen. Ikasle antolamenduan gauza ezberdin asko lantzen dira: batzuetan zerbait antolatu behar delako, egun berezi bat, beste batzuetan problema edo gatazkak daudelako eta horiek konpontzen saiatzeko....

“Paper pila bat daude patioan”, duela urte batzuk gertatu zen hori. Orduan, inguruneokoak IAn (ikasle antolamenduan) erabaki zuten antolatzea astean behin zafarrantxo bat. Hau da, jolastokian gaude, alde egitean jangeletara bidean zerbait ikusten baduzu lurrean eta nahi baduzu jaso eta sartu zakarrantzian. Bidean aurkitzen duguna botatzea. Modu horretan, garbi zegoen. Zer lortzen da horrekin? Bakoitzak zatitxo bat egiten badu, gauza handia egin daitekeela ikustea. “Total berdina dio, jende guztiak botatzen du”, ya baina denok berdina pentsatzen badugu, ez dugu ezer lortuko. Azkenean da, inplikazioa, ardura... komunitatean parte-hartzea aktiboki” (AM_K_3-5).

Estruktura honen bitartez proiektu txikiak burutzen dituzte, eta horien inguruan antolatu eta informazioa bilatu behar dute. Ondoren, bakoitza bere gelara bueltatu eta gainontzekoei informazioa eta egindako lana transmititzen die. Ikasleek beraiek aukeratzen dute dena, eta irakasleak, behar badute, aholkua ematen die; baina beraiek egiten dute guztia egitura honetan. Gainera, azaltzen dutenez, garrantzitsuena ez da zein gai aukeratzen duten, edo zein jarduera, baizik eta estruktura bera eta bertan landuko

dutena.

7. ONDORIOAK

Aurretik aipatu bezala, lan honen helburua ikasleriaren parte-hartzea bultzatzen duen hezkuntza eredu bati ikusgarritasuna ematea izan da. Lortutako informazioa eta emaitzak ikusita, agerian geratu da ikasleriaren parte-hartzea bermatzen den eredu argi bat Amara Berri dela. Bertan, ikaslea proiektuaren ardatzean kokatzen baita eta honek, banaka nahiz taldeka komunitatean parte-hartzeko estrukturak, espazioak eta baliabideak eskaintzen baititu.

Elkarrizketan aipatuenez, emozioek berebiziko eragina dute ikaskuntza prozesuan. Ikaskuntzan duten garrantziari dagokionez, hezitzaileek beren ikasleen garapen emozionalaren arduradunak ere izan behar ote duten eztabaidatzen da (Hinton et al, 2008). Ildo horretan, ikaslea ardatz duten azken ikaskuntza-metodologiek, prozesu kognitiboan emozioek duten garrantzia aitortu ondoren, adierazten dute ikasleak hezkuntza-komunitatearen ahalik eta laguntzarik handiena aurkitu behar dutela garapen emozionalerako prozesuan, ikasleen motibazioa sustatzea oinarri nagusi duten baliabideen bidez (Moreno et al, 2018).

Amara Berrin argi dute benetako ikasketa parte-hartze aktiboaren bitartez ematen dela, eta emozionalki ondo gaudenean ikasten duguna askoz ere esanguratsuagoa dela. Hori dela eta, garrantzitsua da eskoletan horretarako aukerak eskaintzea eta beharrezko arreta jartzea ikasleen egoera emozionalean eta beraien beharretan, ikusi delako horrek ere gerora ikaskuntza prozesuan eragin nabarmena duela.

Honekin lotuta, Amara Berrin ikasleen emozioez gain, ikaslea bera pertsona bezala bere osotasunean ere protagonista eta garrantzitsua da. Horregatik, ikaslea hezkuntza proiektuaren erdigunean kokatzen da; baina hau egiteko ikaslea ikusteko dugun modua aldatu behar da. Izan ere, ikasleak gaitasunak dauzkaten eta autonomiaz jarduteko gaitasuna duten pertsona gisa ikusten dituzte Amara Berrin, eta begirada hau edukitzea ezinbestekoa da askatasuna emateko, horrela ikusten ez baditugu ez garelako askatasuna ematera ausartuko. Amara Berrin ikasleen askatasuna eta parte-hartze maila noraino iristen den ikusteko, aipatzekoa da "Ikasleen Antolamendua" deritzon estruktura. Honi esker, ikus

dezakegu ikasleek ikastetxeko antolaketan eta eguneroko bizitzako erabakietan ere parte har dezaketela, hau egiteko estruktura eta baliabideak eskaintzen badizkiegu.

Bestalde, Amara Berri proiektuan, jolasari garrantzi handia ematen zaio, ikasleen motibazioa pizteko aukera paregabea den aldetik. Ikasleen parte-hartzea bilatzeko, interesetatik jotzea oso garrantzitsua da, eta bertan aipatu bezala, haurren interes handia da jolasa; beraz, ikasleen gogoia sustatuz eta jolasetatik abiatuz, askoz ere hobeto ikasiko dutela ikusi da. Horregatik, beharrezkoa da ikasteko interesa pizten duten jarduera ezohikoak eta harrigarriak asmatzea. Halere, azpimarratu behar da, kontua ez dela ikasgela zentzurik gabeko jolas-zentro bihurtzea; jarduerak ikaslearen interesen arabera planifikatzea baizik, jolasa ikaskuntza eskuratzeko modurik egokiena den heinean. Ikuspegi horretatik, jolasa ikaskuntza serioaren eta gozamenaren arteko konbinazioa da (Torres eta Torres, 2007). Azken finean, jolas didaktikoak erabiliz, ikaskuntza-prozesuan ikasleek lan- eta ordena-ohiturak, garbitasun-ohiturak eta eskolako lanekiko interesa, errespetu- eta lankidetzaren-ohiturak eta sozializazio-ohiturak garatu ditzakete (Dávila, 1987).

Bukatzeko, hezkuntza eredu honek hezkuntza tradizionalarekiko duen beste ezberdintasunetako bat ebaluazioa da. Sistema tradizionaletan, ikasle guztiak modu berdinean ebaluatzen dira, eta ikasleak guztiz ezberdinak izan arren, hauei egindako azterketa edo froga berdina da. Amara Berrin, aldiz, emaitzetan ikus daitekeen bezala, ikasleei baliabide eta aukera ezberdinak eskaintzeko ahalegina egiten da, horrela, bakoitza ezberdina izanda, modu ezberdinean ikasi eta lan egin ahal izateko eta eskola ekitatiboa izateko. Logika hau jarraituz, ebaluazioa ere ez da guztientzat programatutako froga berdina izan behar. Azterketa baten ondorioz izan beharrean, ikasleak lana edo proiektuak egiten dituzten heinean haien gaitasunak edo ahalmenak ikusi ahal izango dira, eta horrela ikasleak testuinguru eta momentu ezberdinetan erakutsitakoa behatuz, irakasleak haietako bakoitzaren gaitasun eta konpetentziak behatu eta ebaluatu ahal izango ditu.

8. MUGAK ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK

Gratu Amaierako Lan hau burutzeko prozesuan zehar, muga esanguratsuena arlo pertsonalean izan dut. Izan ere, mota honetako lan handiak egitera ohituta egon ezean, ez da erraza gestionatzea, eta pertsonalki muga handiena arlo horretan izan dudala uste dut. Garrantzia eta tamaina handia duen lan bat egiteko, garaiz kudeatu eta antolatu behar da

jarduna. Niri, ordea, lana garaiz egitea eta aurretik antolatzea zaila egin zait, tutoreak zeregin horretan asko lagundu didan arren.

Bestalde, Grala egiterako orduan denbora eta esfortzu gehien eskaini behar izan dudana atala, marko teorikoa izan da. Izan ere, ez gaude ohituta horren lan sakonak egiten eta erritmoa hartzea batzuetan kosta egiten da. Prozesu honetan, ohartu nahiz marko teoriko bat eraikitzeak duen lanaz eta azkenean aberasgarria izan arren, zaila ere badela.

Hobetu beharrakoiari dagokionez, egia da lan honetan zehar informazioa pila jaso izan ahal dudala, baina ia guztia modu teoriko batean. Interesgarria izango litzatekeela uste dut jasotako informazioa egunerokoan nola ematen den ikustea, horrela lehen pertsonan behaketaren bidez errealitatea bertatik bertara ezagutzeko aukera izanik.

9. ERREFERENTZIAK

- Anijovich, R., Mora, S., eta Luchetti, E. (2009). *Estrategias de enseñanza: otra mirada al quehacer en el aula*, 1, [http://ciiesregion8.com.ar/portal/wp-content/uploads/2018/10/CIE-Feb-2018-Anijovich-3-Co mo-enseñamos-Las-estrategias-entre-la-teoria-y-la-practica.pdf](http://ciiesregion8.com.ar/portal/wp-content/uploads/2018/10/CIE-Feb-2018-Anijovich-3-Co%20mo%20enseñamos-Las-estrategias-entre-la-teoria-y-la-practica.pdf)
- Bretones, A. (2002). *Concepciones y prácticas de participación en el aula según los estudiantes de magisterio*. Universidad Complutense de Madrid, Servicio de Publicaciones. <https://eprints.ucm.es/id/eprint/2243/1/T21042.pdf>
- Calleja, R. (2010). Un nuevo modelo educativo para el siglo XXI. *Comunidad Escolar, periódico digital de información educativa*, 88 <http://comunidad-escolar.pntic.mec.es/880/report1html>
- Dávila, R. J. (1987). *El juego y la ludoteca. Importancia pedagógica*. Talleres Gráficos de la ULA.
- Fernández, M., Mena, L. eta Riviere, J. (2010). *Fracaso y abandono escolar en España*. Fundación La Caixa.
- García-Pérez, D., eta Montero, I. (2017). Propuesta de marco conceptual para la democracia y la participación del alumnado en la escuela. *Revista Brasileira de Educacao*, 22(71), 1. <https://www.scielo.br/j/rbedu/a/Ff8qczd8LnJqT8b4BBxyxSt/?lang=es>
- Gerver, R. (2010). *Crear hoy la escuela del mañana. La educación y el futuro de nuestros hijos*. SM.
- Gimeno, J. (1998). *De la publicación: Comprender y transformar la enseñanza.*: Ediciones Morata.
- La Cueva, A. (1998). La enseñanza por proyectos: ¿mito o reto?. *Revista Iberoamericana de Educación*, 16, 165-190.
- Larrañaga, A. (2012). *El modelo educativo tradicional frente a las nuevas estrategias de aprendizaje (doktorego-tesia, Unir)*.

https://reunir.unir.net/bitstream/handle/123456789/614/Larra%c3%b1aga%20Ane.pdf?seque_nce=1&isAllowed=y

Moreno, A. E., Rodríguez, J. V. R., eta Rodríguez, I. R. (2018). La importancia de la emoción en el aprendizaje: Propuestas para mejorar la motivación de los estudiantes. *Cuaderno de pedagogía universitaria*, 15(29), 3-11. <https://cuaderno.pucmm.edu.do/index.php/cuadernodepedagogia/article/view/296/273>

Muñoz, G. (2011). Representación simbólica de los consejos escolares como estrategia para democratizar la cultura escolar: una lectura interpretativa desde la voz de los sujetos sociales. *Estudios Pedagógicos*, 37(1), 35-52.

Olalde, M. (2013). *Hezkuntza sistema eztabaidatuz: berrikuntza curricularra eta lan-proiektuen metodologia (Gradu amaierako lana) Nafarroako Unibertsitate Publikoa*. <https://academica-e.unavarra.es/bitstream/handle/2454/7949/HEZKUNTZA%20SISTEMA%20EZTABAIDATUZ.%20EL%20SISTEMA%20EDUCATIVO%20A%20DEBAT.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Osoro, J. M., eta Castro, A. (2017). Educación y democracia: la escuela como “espacio” de participación. *Revista Iberoamericana de Educación*, 75(2), 89-108. <https://rieoei.org/RIE/article/view/2635/3617>

Palacios, C. G. (2013). Caracterización de la comunicación pedagógica en la interacción docente-alumno. *Investigación en enfermería: Imagen y Desarrollo*, 15(2), 65-93.

Pérez, E. (2011). *Educación inclusiva y las comunidades de aprendizaje como alternativa a la escuela tradicional*. (Master Amaierako Lana). Universidad Complutense de Madrid.

https://eprints.ucm.es/id/eprint/15853/1/LA_EDUCACI%C3%93N_INCLUSIVA_TFM.pdf

- Reverte Bernabeu, J., Gallego, A. J., Molina-Carmona, R., eta Satorre Cuerda, R. (2007). *El aprendizaje basado en proyectos como modelo docente. Experiencia interdisciplinar y herramientas groupware*. Alicanteko unibertsitatea <https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/1808/1/Definitivo%20-%202007%20-%20JENUI%20-%20Teruel%20-%20ABP.pdf>
- Rius, M.(2012ko otsailaren 3a). ¿La escuela mata la creatividad?. *La Vanguardia, diario matinal de información general*. <http://www.lavanguardia.com/estilos-de-vida/20120203/54247867713/la-escuela-mata-la-creatividad.html>
- Rizo García, M. (2007). Interacción y comunicación en entornos educativos: Reflexiones teóricas, conceptuales y metodológicas, *Revista de Asociación Nacional de programas de posgrado en comunicación*.(8), 1-16.
- San Fabián, L. (1994). La participación. *Cuadernos de Pedagogía*, 222, 18-21.
- Schiefelbein, E. (1994). Estrategias para elevar la calidad de la educación. *Revista interamericana de desarrollo educativo*, 1 (117), 1-18. <https://repositorio.uahurtado.cl/bitstream/handle/11242/8628/7009.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Susinos, T., eta Ceballos, N. (2012). La voz del alumnado y presencia participativa en la vida escolar. Apuntes para una cartografía de la voz del alumnado en la mejora educativa. *Revista de Educación*, 359, 24-44. <https://repositorio.unican.es/xmlui/handle/10902/10850>
- Torres, B. C., Martínez, L. S. G., Rivera, D. L. R., eta Pérez, D. S. M. (2006). *Aprendizaje basado en proyectos*. ICESI Unibertsitatea. <http://eduteka.icesi.edu.co/pdfdir/crea-ruta-tic-aprendizaje-basado-en-proyectos.pdf>
- Torres, C., eta Torres, M. (2007). El juego como estrategia de aprendizaje en el aula. (Ikerketa proiektua). Andeetako Unibertsitatea. http://www.saber.ula.ve/bitstream/handle/123456789/16668/juego_aprendizaje.pdf.

Thomson, P., Holdsworth, R. (2003). Theorizing change in the educational "field": re-readings of "student participation" projects. *International Journal of Leadership in Education*, 6(4), 371-391.

Trilla, J., eta Novella, A. M. (2001). Educación y participación social de la infancia. *Revista Iberoamericana de Educación (OEI)*, 26, 137-164.
<https://rieoei.org/historico/documentos/rie26a07.PDF>

Vilar, S. (1997). *La nueva racionalidad: comprender la complejidad con métodos transdisciplinarios*. Editorial Kairós.

WITHALL, J. (1989). *Enseñanza centrada en el profesor y enseñanza centrada en el alumno*. Vicens- Vives-

10. ERANSKINAK

10.1 Elkarrizketa egiteko baimen-dokumentua

Elkarrizketa honen asmoa Amara Berri Eskolako informazioa bildu eta informazio hori Lehen Hezkuntzako Gradu Amaierako Lan batean erabiltzea da.

Elkarrizketa honetan parte-hartzea guztiz boluntarioa da eta bertan jasotako datuak konfidentzialak dira. Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako 15/1999 Lege Organikoaren arabera, jakinarazten dugu erabiltzaileen datu pertsonalak izaera pertsonaleko fitxategi batean barneratu ahal izango ditugula. Erabiltzaileak, informazioa aipatutako Gradu Amaierako Lanean barneratua izatea onartzen du. Erabiltzaileen datuak ez dizkiegu hirugarrenei utziko haien baimenik gabe.

Horrez gain, parte-hartzaile izango bazara honako eskubideak dituzula jakinarazten dizugu:

- Parte-hartzea hautazkoa da eta edozein momentutan bota daiteke atzera parte izateko onarpena.
- Helarazitako informazioa erabiltzeko baimenari uko egin ahal izango diozu dokumentuan agertzen den pertsonarekin kontaktuan jarritz.
- Behin ikerketa amaituta, emaitzen inguruko informazio guztia eskura izango duzu, parte-hartzaileen konfidentzialtasuna mantenduz.

Zure ekarpena ikerketa lerro honen garapenean oso baliagarria zaigula gogorarazi nahi dizugu, eta horregatik honakoa onartzea eskertuko genizuke:

- Ikerketa honetan parte-hartzea onartzen dut.
- Talde eztabaidan zehar ikus-entzunezko grabazioak egitea onartzen dut.

Izen-abizenak

Lekua eta data

Sinadura